



**OSASUN 2007 URTERAKO AURREKONTUA.
AZALPEN LABURRA AURREKONTUKO ZIFRA NAGUSIAK**

Zifra handien definizioan sartuta, Osasunaren Aurrekontu proiektua bi mila, zazpiehun eta laurogeita hamazortzi koma bi milioi eurokoa da; hau da, iazko aurrekontuarekin konparatuta, ehuneko hamaika koma bost gehiago.

Kantitate horretatik, Sailak zortziehun eta laurogeita sei koma lau milioi euro gestionatuko ditu zuzen, hau da, Osasun Arlorako aurrekontu osoaren ehuneko hogeita hamaika koma zazpi.

Bere aldetik, Osakidetzak mila, bederatziehun eta hamaika koma bederatzi milioi euro kudeatuko ditu zuzenean. Eurretatik mila, zortziehun eta berrogeita zazpi koma lau milioi izango dira esplotazio-aurrekontua finantzatzeko, eta hirurogeita lau koma lau milioi euro inbertsioetarako.

Edonola ere, data hauek Sanitatearen Atalari dagokion finantziatorako dira. Baina hauei gehitu beharra dago, Osakidetzan, sarrera propioak (30 MM), Gernikako inbertsio berezia (9 MM) eta Lehendakariak joan den irailean iragarri zituen inbertsio berezien Plana (30 MM) eta, Osasun Sailean, Jaurlaritzako pertsonalaren soldata igoerretarako bideratzen den partida (1,47 MM).

Honek suposatzen du **benetako gastu sanitario publikoa 2.869 milioi €-ra iritsiko dela, hau da, 1.348 € biztanle bakoitzeko.**

Jarraian, Osasun Sailak zuzenean gestionatuko dituen partidak xehatuko dira.

OSASUN SAILA Aurrekontua programen arabera

Osasun Sailaren Aurrekontua sei programaren arabera egituratua dago.

Ikus dezagun horietako bakoitza:

1) Administrazio Orokorra: Egitura eta bermea atalerako 23,2 milioi euro bideratzen dira eta honako arlo hauei eskainiko die arreta berezia: Saileko Informazio Sistemen garapenari, aurretiazko borondateen erregistroari eta Plan Estrategiko Soziosanitarioari.

2) Finantziario eta kontratazio sanitarioa. Hemen barne hartzen dira, beste xede batzuen artean, asistentzia zerbitzu publiko eta pribatuen kontratazioa; 207,6 milioi euroko aurrekontua dauka,

baina Osakidetzarekiko programa-hitzarmenak eta irakaskuntza eta ikerketarako laguntzak kontatu gabe; horiek, birritan ez azaltzarren, Entearen Aurrekontuan zehaztuko ditugu.

3) Osasun Publikoa Programara bideratzen den guztizko zenbatekoa 32,0 milioi eurora iristen da.

Programa honetatik aurre emango diegun ekimen garrantzitsuenak honako hauek izango dira:

- **Euskadiko Gripe Pandemiari aurre egiteko Ekintza Planaren** aurrekontuan 5,8 milioi euroko gastua aurreikusten da, batez ere, arriskuko populazioarentzat Pneumokokoagatikoko infekzioari aurre egiteko txertoak, antibiralak eta babesteko ekipamenduak erosteko erabiliko direnak.

- **Haurren Txertaketa Kanpaina:** 6,5 milioi euro.

- **Osasunaren sustapen arloko ekintzak,** honako gai hauei buruzko hezkuntza sanitarioko programen bitartez: elikagaien maneia, ohitura osasungarrien sustapena haur eta gazteen artean, edo gaixotasun metabolikoen jaioberrientzako baheketa programaren zabalkundea (Erdi Katearen Azil Koa Deshidrogenasaren eskasiaren detekzioa barne hartuz): 420.000 €.

4) Plangintza eta Antolamendu Sanitarioa, 5,7 milioi euroko balioko kredituak dituena, eta horiekin, batez ere, • 2002-2010 Osasun Planean aurreikusten diren interbentzio estrategiak garatuko dira.

- Ondoko gai hauei buruzko informazio sanitarioko sistema orokorra sustatuko da: minbiziaren erregistroak, toxikomaniak, haurdunaldiaren borondatezko etetea eta ospitaleko altak.

5) Farmazia eta Prestazio Ortoprotesikoko Programa 617,4 milioi eurora iristen da eta, bertan, preskripzioaren kalitatea hobetzen jarraituko da, eta formulazio generikokoei eta/edo osagai aktiboaren araberekoei dagozkienak gehituko ditu datorren 2007an, %14raino iritsiz eta, horrez gain, Euskadiko Farmazia Antolamenduaren 11/94 Legearen aldaketa bultzatuko da.

6) Informazioaren Gizarteko Euskadi Plana. Programa honetara 318.000 euro bideratzen dira, eta diru horrekin hainbat proiektu garatzen jarraituko da, adibidez, Osasun Txartel Elektronikoa, Errezeta Elektronikoa, Informazio Sistema Integratuak eta Euskadiko Sistema Sanitarioko Ataria.

OSAKIDETZA

Osakidetza/Euskal osasun zerbitzuaren eta Osatek-en 2007 urterako aurrekontua 2.036,3 milioi eurora iristen da; horietatik 1.928,2 milioi Ustiapen Aurrekontuari dagozkio eta 108,1 milioi euro Kapital Aurrekontuari; hau da, Inbertsioei, %40 igo baitira 2006 urterako proiektuarekin alderatuta, gure ekipamendu eta instalazioen modernizazio prozesuari bultzada sendo bat emateko helburuaz.

Ustiapen Aurrekontua Erakundeka.

- Osakidetzaren Ustiapen Gastuen Aurrekontua, zerbitzuen erakunde motaren arabera, honako hau da: Zuzendaritza Orokorrera eta EAEko Lurralde arteko hedadura duten Erakundeetara (Emergentziak, Osatek eta Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroa) 108,4 milioi euro bideratuko dira, hain zuzen, Osakidetzaren ustiapen aurrekontuaren %5,6a.

Lehen Mailako Atentzioko Eskualdeetara 329,3 milioi euro doaz (2006rako aurrekontuan baino %17,1 gehiago). Halere, ospitaleetan egiten dugun bezala, zenbateko horri errezeten gastu farmazeutikoa gehitzen badiogu, hori izan ere lehen mailako atentzioaren beste atal bat baizik ez baita, ikusten dugu asistentzia maila honen benetako zenbatekoa 937.265.086 €-ra iristen dela.

Akutuetako Ospitaleetarako 1.363,6 milioi euro bideratuko dira.
Egonaldi ertain eta luzeko Ospitaleetara 39,2 milioi euro doaz.
Eta azkenik, Ospitale Psikiatrikoetara eta Ospitaletik Kanpoko Osasun Mentalera, 87,6 milioi euro.

Kapital Aurrekontua.

- Inbertsioetara bideratzen diren baliabideen guztizko kopurua 108,15 milioi eurokoa da (2006an baino %40 gehiago) Batez ere helburu hauetarako erabiliko da: ospitalizazio planten birmoldaketarako; urgentzia zerbitzuen zabaltze eta birmoldaketarako; zerbitzu mediko espezializatuak eta bloke kirurgikoak berritzeko; osasun zentro eta osasun mentaleko zentro berriak eraikitzeko eta, noski, ekipamendu eta teknologia puntakoenaz hornitzeko.

Beste era batera esanda:

- 54,8 milioi euro obra eta instalazio estrategikoei dagozkie;
- 23,4 milioi euro zentroen ekipamenduari;
- 13,0 milioi euro oinarritzko ekipamenduaren berrikuntzari;
- 12,0 milioi euro informatika eta komunikazioetarako dira;
- 2,9 milioi euro Osateken inbertsioetarako bideratuko dira.

JARDUERA BERRIAK 2007 URTERAKO

Baina zifrak eta portzentajeak alde batera utzita, aurrekontu proiektu batek benetako zentzua edukiko badu, nahitaez herritarren mesederako izango diren hobekuntza konkretuetarako konpromisoak bere gain hartu behar ditu.

Horregatik, jarraian zehaztasunez azalduko dira datorren 2007an zehar garatu nahi dituen jarduera garrantzitsuenak, eta horietako bakoitzerako onartutako aurrekontua:

JARDUERA

Izateko arrazoi nagusitzat har litekeenetik hasita, alegia, asistentzia sanitariotik, honako jarduera hau iritsi nahi du:

- Lehen mailako atentzian medikuntza orokorreko eta pediatriako 10 milioi kontsulta gainditzea;
- Atentzio espezializatuko 3,8 milioi kontsulta atenditzea;
- 922.000 ospitaleko urgentzia ebaztea;
- 233.000 ingresu egitea;
- Eta ia 220.000 interbentzio kirurgiko gauzatzea.

MAIZTASUNA

Beste era batera esanda, 2007an euskal herritar bakoitza ia bost aldiz joango da lehen mailako atentzioko kontsultara, 1,78 aldiz, kanpoko kontsultetako espezialistarengana, populazioaren ia erdia pasako da ospitaleko urgentzietatik, %11 ingresatuko dira eta ia %9 interbenituko dira kirurgikoki.

TEKNIKA BERRIAK

Martxan jartzeko asmoa dagoen teknika berrien artean, aipatzekoak dira:

- Erretinopatia diabetikoaren segimendu programaren hedatzea, lehen mailako atentzian erretinografoak erabiliz.
- Helikoptero medikalizatu baten kontratazioa.
- Keratoprosesiaren analisisia eta martxan jartzea.
- Irudi erradiologikoen digitalizazio proiektuaren hasiera.
- Azterketa funtzional baskularrak egitea 64 ebaketako OTAren bidez.
- Teknologia kirurgiko berria sartzea laser berdearen bidezko prostataren kirurgiarako.
- EMNko unitate bat martxan jartzea Santiago Ospitalean

- Laborategiko tekniken hedatzea Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroan (Txagas, Paludismo, etab gaixotasunen detekzioa).

INBERTSIO BERRIAK

Atal honetarako aurrekontuan %40ko gehikuntza edukitzeak eskaintzen dituen posibilitateei esker, ekiteko asmoa duen ekimen ugarien artean, garrantzitsuenak aipatuko ditu:

- 20 osasun zentro berri, beren fase guztietan (proiektua, obra eta akabera);
- Basurtuko urgentzien zabaltzea;
- Gurutzetako ohe kopuruaren gehitzea;
- Donostia Ospitaleko urgentzietako bloke kirurgikoaren akabera;
- Amarako eta Lezako ospitalizazio planten berrikuntza;
- Txagorritxu Ospitaleko ZIU, Hemodinamika eta Angiografoa.

PERTSONALA

Pertsonalaren eremuan:

- Pertsonal fakultatiboaren garapen profesionala osatuko du;
- Erizainen garapen profesionaleko lehen fasea ekingo du;
- Enplegu Eskaintza Publikoa osatuko du;
- Euskalduntze Plana garatzen jarraituko du.

AZKEN LABURPENA

Bukatzeko, aurrekontuaren lerro nagusiak laburtuko dira, berorren azken ideia bat egin dezan.

Horrela, hurrengo gardenkian, Euskadiko Sistema Sanitario osoan gestionatuko duen aurrekontu guztiaren **partida nagusietako** bakoitzak duen garrantzi erlatiboa ikus daiteke.

Logikoa denez, zenbateko altuena Osakidetzarekin egindako **programa-kontratuei** dagokie, mila zortziehun eta berrogeita sei koma zortzi milioi eurokoa baita.

Iaz jadanik ehuneko zazpi koma zortziko igoera izan zuten bi mila eta bosteko zenbatekoarekiko, eta hurrengo aurrekontu honek bi mila eta seikoarekin konparatuz hamahiru igoera izango du.

Hurrengo partida **Farmazia eta Prestazio Ortoprotesikoari** dagokiona da, eta seiehun eta hamazazpi koma lau milioi eurokoa da.

Jarraian, **Kontzertuak** daude, ehun eta laurogeita hamabost koma bi milioi euroekin; Eta azkenik, Osakidetzaren **inbertsioak** ehun eta zortzi koma bat milioi eurokoak izango dira, ehuneko berrogei gehiago.

Hauek dira, labur esanda, bi mila eta zazpirako osasun sailaren atalak dituen aurrekontu-proiektuko zifra nagusiak.

Jarraian, **Kontzertuak** daude, ehun eta laurogeita hamabost koma bi milioi euroekin; Eta azkenik, Osakidetzaren **inbertsioak** ehun eta zortzi koma bat milioi eurokoak izango dira, ehuneko berrogei gehiago.

Hauek dira, labur esanda, bi mila eta zazpirako osasun sailaren atalak dituen aurrekontu-proiektuko zifra nagusiak.